



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2025ko laugarren hiruhilekoa



LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA:

EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren osagaiak	6
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak	12
Eranskina – Indizeak	18
Eranskina – Metodologia	22
Fitxa Teknikoa	25

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

- EAEko familiak urte hasieran baino eszeptikoagoak dira
- posizio zertxobait ezkorragoak Europako familien artean




1 EAEko familiak urte hasieran baino eszeptikoagoak dira

EAEko familien laugarren hiruhileko konfiantza-indizeak ezkortasuna erakusten du (-9) eta urteko joera okertu du (-4. -6 eta -6). Hala, profila eszeptizismotik mesfidantzara igaro da pixkanaka.

Urteko balantzea nahiko negatiboa da¹ (-6, lau hiruhilekoren batezbestekoa) eta 2023arekin eta 2024arekin alderatuta tarteko posizioan kokatzen da (-9 eta -4), 2015eko balioaren antzera (-6). Hala ere, 2017 eta 2019 artekoa baino datu okerragoa da paradoxikoki (+1, +1 eta -2).

Kasu honetan ere, azken bi urteetan gertatu den moduan, ziurgabetasun geopolitikoak eta horrek sortutako zarata mediatikoak azkenean izan direnak baino agertoki okerragoak aurreikusi dituzte. Hala ere, ezin da gutxietsi horrek eragileengan (familiak, enpresak...) duen inpaktua, haien igurikimenak kaltetzen dituelako, eta, ondorioz, konfiantza.




2 posizio zertxobait ezkorragoak Europako familien artean

Europako familien kasuan ere, jarrera ezkorrarekin itxi dute urtea (-14). Emaitzak antzekoak izan dira Frantzian (-16) eta Danimarkan (-13), eta Alemaniak (-11) eta Herbehereek (-10) apur bat hobetu dute Europako batezbestekoa.

Bilakaera-profila partekatua da: konfiantza geldituta dago edo hobekuntza txikiak izan ditu. Emaiza horiek bat datoz gizarte bakoitzeko familien igurikimenekin, eta munduko testuinguru geopolitiko aldakorrek eragina izan du horretan; izan ere, EB -eta, zehazki, Frantzia eta Alemania- lidergotik kanpo geratu da, hazkunde ekonomiko² ahula izan baitute (oraindik, baina espero zena baino hobea) Frantziak (+% 0,7) eta Alemaniak (+% 0,2). Hobea izan da egoera Herbehereetan (+% 1,2) eta Danimarkan (+% 1,4), eta, batez ere, Espainian (+% 2,9) eta Euskadin (+% 2,2).

Kontsumitzaileen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak¹



1. 2025eko hirugarren hiruhilekoko datua behin-behinekoa da. Uztaila-abuztua batezbestekoa


EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGIAK

- ekonomiaren martxaren gaineko igurikimenek konfiantza kaltetu dute
- profil ia baikorra mantentzen dute enpleguari dagokionez
- profil zuhurra berretsi da familiako ekonomiaren bilakaeraren inguruan
- eta aurrezteko gaitasunaren gaineko igurikimenak positiboak dira
- enplegua eta aurrezteko gaitasuna, familien konfiantzaren gakoak

3 | ekonomiaren martxaren gaineko igurikimenek konfiantza kaltetu dute

EAEko familien konfiantzan (-9) eragina izan du ekonomia orokorraren martxaren gaineko ezkortasunak (-25), okerrera egin baitu urteak aurrera egin ahala (-19, -21 eta -22). Urteko emaitza negatiboa izan da (-22), eta 2014ko (-21) eta 2023ko (-23) emaitzen antzekoa. Egoera ekonomiko negatiboak eta inflazioak eragindako mesfidantzak eragina izan zuten urte horietan, hurrenez hurren.

Paradoxikoki, faktore horietako bat bera ere ez dago presente 2025ean; hazkunde ekonomikoak1 (+% 2,3) 2024koaren antzekoa da (+% 2,5) eta hasierako aurreikuspenen gainetik dago. Inflazioa % 2ra hurbildu da (pixkanaka). Baina, hala eta guztiz ere, urtean zehar hamar familiatik bostek adierazi du egoera ekonomikoak okerrera egingo duela (% 48-49), hamarretik lauk (% 42-43) berdin mantenduko dela eta hamarretik batek hobera egingo duela (% 9). Hortaz, egoera ekonomikoaren eta enpleguaren datuak positiboak badira, zerk (informazioa) kaltetzen ditu biztanleriaren zati handi baten igurikimen ekonomikoak? Zarata mediatikoak, prezioen hazkundeak...?




4 | profil ia baikorra mantentzen dute enpleguari dagokionez

EAEko familiak lan-merkatuaren bilakaeraren gainean dituzten igurikimenak neutralak (0) izan dira urtearen amaieran eta urteko balantzea positiboa izan da (+3), 2024koaren antzekoa (+2). Igurikimen horien oinarrian dago familien erdiak (% 53) uste duela langabeziak berdin jarraituko duela, gora egingo dela (% 20) edo murriztu egingo dela (% 26) uste dutenekin alderatuta.

Igurikimen positibo hauek guztiz bat datoz lan-merkatuaren bilakaerarekin (2025eko urtarrila-iraila batezbestekoa): 1.023.099 afiliatu daude Gizarte Segurantzari eta 106.928 pertsona langabezia. Hortaz, 2024ko aldi horretan baino 10.684 afiliatu gehiago eta 2.108 langabe gutxiago dira.


Nola kontziliatzen dira ekonomia orokorraren gaineko igurikimen negatiboak eta enpleguaren gaineko igurikimen ez hain negatiboak (-22 eta +3, urteko batezbestekoa)? Azalpen bakarra da zarata mediatikoak dimentsio handiegia ematen diola ziurrenik ziurgabetasun geopolitikoari (errealari) eta emaitza “negatiboak” gehiago zabaltzen dituela “positiboak” baino (titularrak).



5 | profil zuhurra berretsi da familiako ekonomiaren bilakaeraren inguruan

Familiaren ekonomiaren bilakaeraren gaineko igurikimenek lan-egoeraren gaineko pertzepzioa, diru-sarreraren balantzea, aurre egin beharreko gastuak eta prezioen inpaktua uztartzen dituzte. Oro har, zuhurtziarako joera dute familiek eta familiako ekonomiaren bilakaeraren gaineko indizearen martxa apur bat ezkorra da (-11). Hala, 2025erako bilakaera (batezbestekoa, -9) 2024ko aldi horretakoa baino apur bat okerragoa da (-5).

Baina, paradoxikoki, familiaren kontsumoaren ibilbidea (Eustat) hazten ari da: % 2,6, % 2,9 eta % 2,8ko urte arteko hazkundea izan du 2025eko lehen eta hirugarren hiruhilekoen artean, eta 2024ko batez besteko balioa gainditu du (+% 2,5). Azkenik, badirudi exekutatzen dutena baino familiako ekonomia-agertoki okerragoa aurreikusten dutela pertsonak, haien kontsumoaren dinamismoak eta batez ere aurrezkiaren gaineko igurikimen positiboek erakusten duten moduan.




6 | eta aurrezteko gaitasunaren gaineko igurikimenak positiboak dira

EAEko familien aurrezteko gaitasunaren gaineko igurikimenak positiboak izan dira 2025ean (+3) eta 2024koaren antzekoak dira (+2), nahiz eta azken hiruhilekoan atzeraldi txiki bat izan (1, -3 puntu).

2025ean zehar, EAEko familien erdiak adierazi du datozen hamabi hilabeteetan aurreztu egingo duela eta, are, heren batek uste du aurreztuko duela seguru; beste erdiak berriz uste du ziurrenik edo seguru ez duela aurreztuko. Hala eta guztiz ere, EAEko familien % 75ek dio azken 12 hilabeteetan aurreztu egin duela eta % 25ek ez duela batere aurreztu.

Bi emaitzen konbinazioak berresten du familien erantzuna zurrugoa dela egin beharreko aurrezkiari dagokionez: azken hamabi hilabeteetan aurreztu duten familien ehunekoa aurreztearen aurreikusten duten familia baina handiagoa da sistematikoki, eta horrek erakusten du EAEko familia gehienek kaudimen ekonomiko-finantzarioa dutela.

Aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenak. EAE



7 | enplegua eta aurrezteko gaitasuna, familien konfiantzaren gakoak

Laugarren hiruhilekoko emaitzek hoztu egin dute hein batean EAEko familien konfiantza (-9, -3 puntu), eta, ondorioz, urteko balantzeak okerrera egin du (-6) 2024arekin alderatuta (-4). Lau indize partzialen bilakaerak eragin du emaitza hori:

- Ekonomia orokorraren bilakaerari dagokionez, ezkortasun argia (-22) mantendu da. Emaitza hori erabat bereizita dago langabeziaren bilakaerari buruzko igurikimen positibotik (3); izan ere, bi adierazleek "noranzko berean" mugitzea espero daiteke.

Baliteke "albistek" (ezkorrak izan ohi dira) eragina izatea igurikimen negatibo horiengan, hazkunde ekonomiko errealetik urrun baitaude, aurreikusitakoa baino hobeia izan delako. Horrez gain, ez datoz bat langabeziaren gaineko bilakaerarekin, positiboa (+3) izan baita eta, paradoxikoki, afiliazioaren maximo historikoekin eta langabeziaren pixkanakako beherakadarekin bat dator.

- Familiak zuhurtzia handiagoa dute familien ekonomiaren bilakaerarekiko (urteko batezbestekoa -9), agian, etxeko kudeaketak gorakada inflazionista handiari aurre egin behar izan diolako berriki. Baina, aldi berean, aurrezteko gaitasunaren gaineko igurikimen positiboa dute (+3), eta horrek agerian uzten du EAEko familien zati handi batek duen kaudimen ekonomiko-finantzarioa.

Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	2023	2024	2025	IH-25	IIH-25	IIIH-25	IVH-25	Aldea	
Familien konfiantza	-9	-4	-6	-4	-6	-6	-9	-3	▼
Ekonomia orokorra	-21	-15	-22	-19	-21	-22	-25	-3	▼
Etxeko ekonomia	-12	-5	-9	-6	-9	-9	-11	-2	►
Langabeziaren bilakaera	-4	2	3	5	4	2	0	-2	►
Aurrezteko gaitasuna	-2	2	3	1	4	4	1	-3	▼

⇔ (±2 puntuko aldea)

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN EROSKETA-ERABAKIAK

- prezioen bilakaeraren gaineko ezkortasuna handitu da
- erosteko unearen balorazioak okerrera egin du
- erosketa handien gaineko igurikimenak positiboak dira
- etxebizitza edo ibilgailua erosteko asmoa sendoa da
- familien kontsumo- eta inbertsio-igurikimenak finkatu egin dira




8 prezioen bilakaeraren gaineko ezkortasuna handitu da

Laugarren lauhilekoan, EAEko familiek prezioen bilakaeraren gainean dituzten igurikimenek okerrera egin dute (-23), eta urtean zehar erregistratutako igurikimen negatiboa indartu egin da (-15, -18 eta -18, 2025eko lehen eta hirugarren hiruhilekoen artean). Urteko balantzeari ezkorra da (-18) eta aurreko bi urteetan lortutako emaitzarik onenetatik urrun dago (-6 eta +4, 2023 eta 2024), azkenaldiko une inflazionistatik okerrenetatik suspertzea lortu baitzen (-41 eta -48, 2021ean eta 2022an).

Igurikimen ezkor hori bat dator prezioen hazkundearekin (urriko KPIa +% 3,2% eta +% 3,1, EAEko eta Estatuko urte arteko tasaren kasuan), gora egin baitu uztailetik, eta inflazioak, berriz, beherakadarik handiena izan du (+% 2,5 urrian, EAEn eta Estatuan). Horrez gain, adierazgarria da prestatu gabeko elikagaiek izandako portaera negatiboa (+% 3,7 eta +% 2,4 urrian, EAEn eta Estatuan), inpaktu handia izan baitu etxeko ekonomian. Prezioen pertzepzio altuari gehitu behar zaio efektu hori. Azaroko aurrerapen-maila (+% 3,0 eta +% 2,6 Estatuan) urrun dago % 2tik.

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?¹ (pertsonen %a)



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez; ² Prestatu gabeko elikagaiak eta produktu energetikoak kenduta

9 | erosteko unearen balorazioak okerrera egin du


Oro har, zer iruditzen zaizu oraingo unea etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteko?

EAEko familiek erosketa handiak egiteko uneari buruz egindako balorazio negatiboak okerrera egin du (-20), eta urteko ibilbidea (-16, -23 eta -13, lehenengo eta hirugarren hiruhilekoen artean) hegakorra eta nagusiki negatiboa izan da, 2024koaren (-19) antzeko urteko balantzearekin (-18).

Laugarren hiruhileko honetan, bi herenera handitu da erosteko unearen gaineko balorazio neutroa egin duten familien taldea (% 64, ehuneko +5 puntu); halaber, asko murriztu da une ona dela uste dutenen taldea (% 8, ehuneko -6 puntu) eta finkatu egin da une txarra dela uste dutenena (% 28, ehuneko +1 puntu).

Erosteke unearen balorazioarekiko axolagabetasun hori "beharrik ez izatearekin" edo erosteko gaitasunarekin (beharrezkoa izanez gero) lotuta egongo litzateke; bestalde, une txarraren balorazioa erosketa horiei (beharrezkoak izan ala ez) aurre egin ezin izatearekin lotuta dago.

Erosteke unearen balioztapena¹




10 | erosketa handien gaineko igurikimenak positiboak dira

Zure ustez, nolakoak izango dira etxeko erosketak edo gastuak (hala nola altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

Laugarren hiruhilekoan erosketa handien gaineko igurikimenen indizea neutroa izan da (0), eta urtean zehar erregistratutako hobekuntza-ibilbidea finkatu da (4, 0 eta 2). 2025eko balantzea positiboa da (1) eta urrundu egin da azken hiru urteetako balio negatiboetatik (2022, 2023 eta 2024an -11, -7 eta -1, hurrenez hurren).

Emaitza horren arrazoia da hobera egin duela erosketak berdinak izango direla uste duten pertsonen taldeak, baina batez ere, erosketa gehiago egingo dituztela uste dutenen taldeak (% 25, % 20, % 21 eta % 24). Erosketa gutxiago egin dituztela uste duten pertsonen taldea aldiz txikitu egin da (% 17, % 20, % 18 eta % 23).

— Zure ustetan, nolakoak izango dira etxeko erosketak datozen 12 hilabeteetan¹ —
(pertsoneen %a)



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez.

11 | etxebizitza edo ibilgailua erosteko asmoa sendoa da

Familien % 1ek esan du urtean zehar etxebizitza bat erosiko duela (seguru). Eskariaren bultzada (urtarrila-iraila bitartean metatua) agerikoa da: etxebizitzaren 19.905 salerosketa-operazio¹ egin dira EAEn (urte arteko tasa +% 17,5), 2009az geroztik izandako behin-behineko (hiru hiruhileko) balantzerik onena da, baina ez da 2007ko maximora iristen.

Etxebizitza erosteko asmoa

(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonen %a)

■ I H 2025 ■ II H 2025 ■ III H 2025 ■ IV H 2025




Ibilgailua erosteko asmoa duten EAEko familien ratioa % 5etik gora finkatu da, eta hobera egin du urtean zehar. 2025ean, eta hilabete baten faltan (urtarrila-azaroa), 27.283 ibilgailu berri² saldu dira EAEn (+% 19,2 urte arteko tasan). Zifra horiek azken urteetako onenak dira, baina pandemia aurreko mailetatik urrun daude oraindik ere (urtarrila-azaroa bitartean metatua, 2018-2019ko batezbestekoa, 37.346 unitate).

Ibilgailua erosteko asmoa

(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonen %a)

■ I H 2025 ■ II H 2025 ■ III H 2025 ■ IV H 2025



¹ EIN, Jabetza-eskubideen transmisioen estatistika (etxebizitzaren salmenta); ² Anfac.

12 | familien kontsumo- eta inbertsio-igurikimenak finkatu egin dira

Laugarren hiruhilekoko emaitzak aurrekoen maila antzekoan mantendu dira eta kontsumo-adierazleak finkatu egin direla berretsi dute, enpleguaren, familiaren egoera ekonomikoaren eta aurrezteko gaitasunaren gaineko igurikimenekin lotuta. Hala, EAEko familien kasuan...

- 2025 amaieran, prezioen gaineko igurikimenak okerragoak dira (-18), eta orain arte baino azkarrago igoko direla uste dute, KPlaren bilakaera % 3 inguruan dagoelako, % 2ko atalase (desiragarritik) urrun.
- Paradoxikoki, erosteko unearen gaineko balorazioak (-8) hirurteko emaitzarik onena erregistratu du, besteak beste, lan-merkatuaren emaitza positiboengatik (diru-sarreraren segurtasuna). Hala, erosketen gaineko igurikimenen indizeak balantze positiboa (+1) izan du, eta aurreko biurtekoko emaitzak hobetu ditu.
- Etxebizitza eta ibilgailua erosteko asmoak hobekuntza-profil txikia izan du 2025ean zehar. Etxebizitzaren salerosketak bultzada izan du (urtarrila-iraila bitartean 19.905 operazio, +% 17,5eko urte arteko tasa), eta 2009az geroztik erregistratutako zifrarik onena izan da, 2007ko balio maximora hurbilduz. Ibilgailu berrien salmentak bultzada nabarmena izan du (urtarrila-azaroa bitartean metatua, +% 19,2, 27.283 unitate), baina ez da nahikoa izan pandemia aurreko balioetara iristeko (2018-2019ko batezbestekoa, 37.346 unitate).

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	<u>2023</u>	<u>2024</u>	<u>2025</u>	<u>I H-25</u>	<u>II H-25</u>	<u>III H-25</u>	<u>IV H-25</u>	<u>Aldea</u>	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-6	4	-18	-15	-18	-18	-23	-5	▼
Erosteko unearen balorazioa	-27	-19	-8	-16	-23	-13	-20	-7	▼
Erosketak egiteko igurikimenak	-7	-1	1	4	0	2	0	-2	▶


⇔ (±2 puntuko aldea)

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantzaren indizea

euskal familien konfiantzaren indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazle batzuk



I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2023	2024	2025	I H-25	II H-25	III H-25	IV H-25	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea								
• EAE	-9	-4	-6	-4	-6	-6	-9	▶
• EB*	-17	-13	-14	-13	-15	-15	-14	▶
○ Frantzia*	-17	-14	-16	-13	-17	-18	-16	▲
○ Alemania*	-15	-11	-10	-12	-10	-10	-11	▶
○ Danimarka*	-8	-5	-13	-10	-14	-13	-13	▶
○ Herbehereak*	-18	-11	-15	-16	-18	-14	-10	▲
Osagaiak: familien konfiantza. EAE								
• Ekonomia orokorra	-21	-15	-22	-19	-21	-22	-25	▼
• Etxeko ekonomia	-12	-5	-9	-6	-9	-9	-11	▶
• Langabezia	-4	2	3	5	4	2	0	▶
• Aurrezkia	-2	2	3	1	4	4	1	▼
Beste indize batzuk. EAE								
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-6	4	-18	-15	-18	-18	-23	▼
• Erosteke unearen balioztapena	-27	-19	-18	-16	-23	-13	-20	▼
• Erosketak egiteko igurikimena	-7	-1	1	4	0	2	0	▶
Erosketa handiak. EAE**								
• Etxebizitza	0,6	0,5	0,9	0,8	0,9	0,9	1,1	▶
• Autoa	4,3	5,5	5,1	4,9	4,7	5,6	5,1	▶

⇔ (± 2 puntuko aldea)

* III. hiruhilekoko datuak uztaila-abuztua batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II euskal familien konfiantzaren indizea, ezaugarrien arabera

	2023	2024	2025	I H-25	II H-25	III H-25	IV H-25	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea								
• EAE	-9	-4	-6	-4	-6	-6	-9	▶
Adin-taldeak								
• 25 eta 39 urte bitartean	-10	-9	-10	-9	-14	-7	-9	▶
• 40 eta 54 urte bitartean	-9	-3	-6	-1	-9	-1	-11	▼
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	0	-5	-6	0	-4	-11	▼
• 65 eta 74 urte bitartean	-12	-2	-4	-2	5	-17	-2	▲
Lan egoera								
• Landuna (soldatapekoa/ norbere kontura)	-7	-4	-4	-5	-9	-4	3	▲
• Langabea	-23	-17	-5	-9	-9	-2	2	▲
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-9	0	-3	-2	3	-11	1	▲
Familia-unitatearen hileko errenta								
• 1.700 €-rainokoa	-20	-16	-9	-17	-11	-12	2	▲
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	-9	-5	-4	-5	-8	-6	2	▲
• 2.800 €-tik gorakoa	-1	3	0	0	-1	-3	3	▲

⇔ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazle batzuk

	IV H – 24	I H – 25	II H – 25	III H – 25	IV H – 25 _b	(azkena)
BPG	1,9	2,3	2,4	2,2	--	III. Hiruhilekoa
Familien kontsumoa	2,4	2,4	2,3	2,7	--	III. Hiruhilekoa
Afiliazioa	1,7	-0,4	0,9	-1,1	1,7	urria-azaroa
Erregistratutako langabezia	-1,1	0,7	-3,5	2,0	0,0	urria-azaroa
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	1,0	0,1	1,3	1,6	--	III. Hiruhilekoa
Etxebizitzen salerosketa	-5,1	8,5	-5,8	6,2	--	iraila
Ibilgailuen matrikulazioa	33,3	-15,8	27,7	-9,3	16,5	IV. hiruhilekoa

b: behin behinekoa

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Anfac. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziatzko datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, azken aldakuntza behin behinekoa da eta hori kalkulatzeko eskura dagoen azken datua (bi hilabete) hartzen da kontuan.

Erreferentziatzko datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatzeko da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esan nahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonak duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ *Consumer Confidence Indicator*, dokumentu honetan familien konfiantzaren indize bezala aipatzen dena, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobeagorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie
- 2025ko azaroaren 13tik 23ra (2025ko IV. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzaileen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm